ZERU-URRATZAILLE OIEK

Gure aldiko gaitz bat degu etxe luze ta aundi oiena. «Rascacielos» deitzen diegu erderaz; euskeraz «Zeru-Urratzailleak»-edo deitu bearko diegu. Guretzat, lengo erri aiek beren bi ta iru bizitza edo pisoekin ziran politenak.

Gizona erri aundietan bildu da neurri geiegian eta bizilekua denentzat sortzeko, lur estuan etxe luzeak jasotzea asmatu da. Asmoa ona da; baiña premi onen inguruan, irabazi gosea erretu da. Bakoitzak bere lurra al-duan garestiena saldu nai du. Lurra garestitu ezkero, eroselak al-dan goitiens, altuena jasotzen du etxe berria. Onela lur txikiari irabazi aundia ateratzen dio.

Ta diru-goseak eztu neurririk. Asko duanak, geiago nai du. Ta erri aundien inguruko lurrak egundoko prezioa iristen du, etxe-bizitza premi ori geitzen ari dan neurrian.

—•—

Etxe erraldoi oiek, ordea, beste kontu asko eskatzen dute beren inguruan. Etxe oietan sartzen diranak, etxerako bideak errezak bear dituzte. Etxe ondoan, beren beribillak uzteko lekua eskatzen dute.

Orregatik, etxe alboetan, bide asko, batzuek goragotik, besteak beragotik bear izaten dira, eri barruan bai oiñezko ta bai beribildunak bidea itota arkitu ez dezaten.

Gure artean onelako arreterik gabe egin dira zenbait etxe aundi oietakoak. Erriari izena ematekо onak omen-dira onelako «Zeru-urratzaille» oiek. Bai, ongi egiñak ba-dira, ta inguruak zabalak uzten ba-dira. Bestela, uri aundi oiek itota uzten dira.

Eta ori gertatu da burugabe ibilli diran tokietan. Ta burugabe jokatzea da, goraka neurririk ez artzea, ta zabalean tokirik ez dagon lekuan orrelako etxeak jasotzea.

—•—

Gaitza salatu degu. Baiña gaitz ori sendabidean jarri bearra degu. Diru-goseak sortu dituan ezbearrak, norbaitek zuzendu bearko ditu. Ta emendik aurrera, onelako etxeak jaso nai dituanari bere legeak jarri bear zaizkio. Ona emen kontu onek eskatzen duana.

Euskalerrian ikasiko ote-degu lezio au? Begiratu bearra degu, ba, gauzak okertu baiño len.

Donosti'ko Amara aldean, zabaldi bat artua degu. Alderdi orretan, beste auzoetan baiño etxe luzeagoak jaso dizkigute. Norbaitek esan du Naparru aldean-edo, etxe oiek eragabeak dirala. Gure ikuspegia itxusitu egiten dutela.

Kontuan jartzea ona da. Gure agintariak bere eskuan dute, geiegikeriak lenbailen moztea. Gaitzak gure artean kaite aundiak egin ditzan baiño lenago, norbaitek esnatu bear du arrisku orren kezka. Gure industri aundiegi onek ere, alde askotako jendea inguratu du gure artera. Olentzako etxe-bizitzak jasotzen dituzte gero.

Ta gure erri politak, tentelkeri orren ondorenak bere alderdi politetan sufritu bear izaten dituzte. Gauden erne. Ez dezagun gure arduragabekeria zabaldu. Geroko gure errien ikuspegia ta gure mendi ta landa zoragarrien itxura guzia narrastu nai ezpadegu, gaurtik begiratu bear diogu eginbide oni.

GAZTANBERA, GATZAYOA TA AKETTA, FOLKLORE BIDEZ ETA UMOREZ

Gaur, euskal folklorearen alde hitz batzuek esan nahi nituzke. Era berriko kanta ta doiñu edo gure folklorerik jatorrenak inguruko beste folklore-ekin duen edo zuen zer ikusiaretzaz iñoiz mintzatu geranean, anitzek uste izan dute gure folklorearen aurka jardun gerala. Baiña, nere ustez iñoiz ez naiz jardun folklorearen aurka; folklorekeriarena bai. Ta gaurko Euskal Herrian folklorekeria geiago nabaitzen dugu folklore jatorra baiño.

Gure herriko «kulturadunak», txepelak ez balira, jakin behar lukete Euskal Herriak, folklore aldetik, musikarekin batean herri-kanta zaharretan duela aberastasunik geien. Baiña nekeza zaie hori konprenitzea horaindik euskera bera ere folklorea dala uste duteneri. Jakin bezate hizkuntza bat iñoiz ere ez dela folklorea, bere zenbait izakera ta oituretan, bere jenio, kanta zahar, bertsularitza, jolas, ipui, siniskera ta abarren bidez folklorea badaramate ere. Euskera galtzera, folklorearen zati guzi edo geien hoiek berarekin batean galduko lirake. Euskera bide, euskal kantak badute euskal folklorearentzat eztirik aski. Euskera gabe, zer? Ta, hala ere, euskera galduarren euskal oiturak berdintsu jarraitzen dutela? Auntzaren gaberdiko eztula! Erle joanak, eztirik ez.

«Norpere burua ezagutzea da jakitzea», esaera zaharrak dion bezala. Horrela gabiltza gu aspaldidala. Zaletan zur, eta iriñetan oro. Zeren alperrik gabiltza euskera sakon ezagutu gabe gure herriko zenbait gauza ulertu nahirik. Maiz, euskera jakitzea ere naikoa ez delarik, han baldin bada azaletikako jakintza batean. Igaz, Naparroako Urraul Alto (inguru hartako eskualdunentzat: *Purdix-herria)* haranean etnologi aztarketa batzuek egiten giñelarik, jaun batek esan zidan: «Me apellido Iriguibel, que según los que saben vascuence, quiere decir, «higado de buey». Hark bazituan bai gibelak galantak, hori esan ta hain lasai gelditu zelarik. Izatez ez zan besterik: «iri-gibel»: *iri* edo *uri*, ta *gibel* —atzekaldea baizik. Beraz, herri-atzekaldea edo herri-ostea izatetik, idiaren errailetako gibelera bada desberdintasunik; erbiak itsasoz eta legatzak mendiz ikustea bezala da.

Gure folkloreak, musika ta kantazaharretatik aparte ere badu munduarentzat gauza probetxukorik, euskal janarietan. Gibela-gibel danean, tomatearekin ederki ipintzen dakite Eibarko Ondamendin; hura janda etzaio iñori etorri «ondamendirik». Zenbat tokitan ez ote ditugu arkitzen, gure herrian, jánari txukunak? Zer litzake Donostiako danborrada, bertako jatetxe gabe?

Beraz, nun dira gure folklore zaleak? Gutxi batzuen artean Adriana Juaristi eta J. M. Busca Isusi'k beren iburuetan amaika gauzon ezagutzera eman digute. Euskeraz, Julene Azpeitia'k aintziña eman zuen *Osasuna, merketzu ta yanaritzaz* (Bilbao, 1920), eusketzale gutxik eta folklorista gutxiagok ezagutuko duten liburua. Ta, aspaldiko urte hauetan A. Arrue'k bere *Jan-edanak* «Egan»en bidez eman dizkigu. Baiña ez da aski hainbeste folklorezale duan herri-baterako.

Kanta zaharretan ere sarri arkitzen dira aintziñatiko janari ta edariak. Iñork ez du azterketa zehatz bat egin.

Horaindik herrietan etxez-etxe sakabanaturik ditugu janaritza era asko, beren egikerako errezetak jasotzeke. Bestaldetik berriz, zenbait gauza industrializatzen ari dira. Iruñako etxe batek koñak-aran eta anis-aran edariak jarri ditu «Pacharan» izenez; era berean Erriojako batek ere. «Pacharan», ez uste «patxaran» bizi diranentzat bakarrik danik. Ez. Izen hori euskal izena da, baiña «basaran»dik datorrena.

Donostian berriz «Kemen» izenezko mamia industrializatu dute. Jakiña. «mamia» ez dala, mamizkoa izanarren. Beste gauza anitz ere badira mamizkoak. Baiña, giputzak, beti euskeraren batasunaretzaz ari direlarik, beti berenean ikusten dute batasun hori; konturatzeke, beren usteak, uste hutsak besterik ez direla. Bai Naparroan, mugazandiko Euskal Herrian eta Bizkaian, mamiak, beste gabe, bestelako esan nahi bat du; ta gipuzkoarrak «mamia» deitzen diotenari «gaztanbera» ta «gatzatua» deitzen diote. Horaindik ez dira konturatu hizkuntzaren batasuna zentzunaren erdian behar duela, ta ez geografiaren leku erdian.

«Mamiak», esan-gura horretan ez du zahar itxurarik. Kiputzak ezin dute billatu beintzat agiri zaharretan, beste euskalkietakoak berenetan billatzen duten bezala. Haundiña da, Eibarren bertan ere, obe beharrez, batzuek gatzatuari «mamia» deitzen asiak direla. Ez dakigu zergaitik, baiña sarri kanpotik datorrenari abegi obea egiten zaio, ta horrela, aintziña ere asi ziran, euskera obearen ustean, eskerrikaskoren ordez «merzi» esaten.

Lerin'go konde beamondarrak, Gaztelaniako errege katolikoak kristau bezela jokatzen ez zuten denboran, hauen laguntzarekin Naparroari bere eskubideak galerazi zizkion denborakoa dugu «Bereterretxen kantoria». Beraz, ez da atzo goizekoa. Eta bertan hunela aipatzen da gaztanbera:

Haltzak ez du bihotzik,
ez gaztanberak hezurrik.
Enian uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik.

Horrela asten da lau menderen buruan guregana eldu zaigun kanta.

Era berean, eta mende berean noski. Bizkai aldetik jasotzen dugu oiñaz ta ganboar denborako kanta baten zatia, Urrexolako guduan, gazatua edo gatzaya aipatzen duena:

Gaiza zenduan lenizanok
Urruxolako lekayoa.
Sendo zenduan odolori
biurtu jatzu gazayoa.

Hunela gertatzen da hitz askorekin, industrializazioak berez dakarren batasunera hitzik egokienak edo jatorrenak hartu ezik.

Kafe-konpletoak hartzeko oiturak ere, munduak bere martxan dakarrena da, industrializazio ugai ta kutsuz, eta nunbait hortara jokatu zan: Azkue zanak arkitu omen zituan bein Donostiriko zenbait aiso «aketa» hartzen (donestiritarrentzat, «aketta» zan, kafea pattarrarekin nahasturik; Eibarren «konpuestua» izenez ezagutzen duguna), ta beste gabe, hartzen zeudeneri, galdea egin zien, zelan deitzen zioten: «Aketta» erantzun zuten. Beraz, ez zan kafea, bertako argot partikularzkian kafe ta pattarrarekin egiten zuten nahaste hura baizik. Nork esan, urteak igarota. Azkuek bere iztegiak sartu zuen akats harek horrenbeste hizbide ekarri behar zituanik? Azkuek bere borondatearen kontra egin zuen okerra, nork esan askorentzat «zuzena» izan behar zala? Euskeraz ez dakiten «ultra vasquista»k ere, «kafe hutsa» eskatzeko, «akaita bakarra» (café sólo) deitzeraiño.

Ez hori bakarrik; horain urte gutxi Holmer sueziar hizkuntzalaria etorri zanean, uste izan zuen billaketa arrigarri bat egin zuela, munduko hizkuntza guztietan «kafe» sustraiz esaten zana euskaldunok «akeita» esaten geniola konturatu zanean. Hau, beste bat geiago gure lotsarirako.

Gero, badakizu ba, «akeita»rekin «kopa» ta «purua» esatea ez zala euskera hain purua, eta beste nolabait antolatu behar, gauzeari bere itxura emango bazaio. Eibar inguruetan edontziari «txolota» deitzen diogula jakiñik, txikiagotu ezkero «txola» danez, oso ongi «kopa»ren ordez. Gernika aldean urkuldutako artaburuari, txorokillari, «txokorra» deitzen diotenez, bere itxuragaitik ez zetorren gaizki «puru» ordez. Ederto ba, akerkeri biribil-biribilla. Oso ongi antolatzen dakizkigu behar ez diran gauzak. «Akaita, txola ta txokorra»: berdin balitz «akerra, txala ta txekorra». Adarra joteko zer obe adarduna baiño?

Horain, hutsezko hitzak zaintzeko burrukan, jatorrizkoak millakak galzorian daudelarik. Umorez hartu behar dira gauza hoiek.

JUAN SAN MARTIN

ESKUTITZAK

IBON SARASOLA OLERKARIARI

Itzaldi entzutekoa egin dezuna, euskal olertia dala-ta.

Solas ontan, antziñako ta gaurko euskal poesiari begikada bat egin diozu, eta benetako entzungarriak eta pentsugarriak irudi zaizkit zure irtziak, naiz ta "puritano" batzuek nabarmentzat artuko dituzte, noski.

Ala ere, nabarmenkeria bearrezkoa da nunbait, gure egunetan. Beste toki batean, idatzi berri dedan bezela, "gaurko egunean gauzak diran egoeran, txerrenak berak euskal baratzean, pixka bat anka sartzea, komeni izango litzake, apiku, gure sekulado lozorrotik esnatu gaitezen".

Igaroa da, zure ustez. Lizardi, Orixe ta Lauxeta'ren belauna. Guztiz aitua degu, onezkero bear zuen guztia eman bait du berak. Gure aroak olerti berri bat eskatzen du, ta alperrik dabiltz aspaldiko olerkarien antzarleak, imitadoreak.

Olatu berriak, Gabriel Aresti du, buru ta sortzaille. Lete ta Mikel Lasa dira, beste batzuen artean. Aresti'ren segitzaillerik argienak, eta bide berorri ekin bear diote gazteagoak, nai ta naiez. etorkizunari arpegi emateko.

Are geiago: norbaitek galdetzen baldin badizu, bien artean, Aresti ala Lizardi, olerkaririk onena dezunki, erantzuna batere zalantzik gabe egingo diozu: zure poeta, gaurko poeta, gazteen poeta, Gabriel Aresti da, alajaña.

Nere erara esan ditut gauzak, baiñan au da, oker ezpanabil, zuk esandakoaren mamia.

"Bai ausarkeri izugarria! Ezin eramanekoa da gazte orren itza!" —deader egingo du baten-batek.

Nolanai ere, ezagutu bear degu guztiok, igaroa igaro dala, eta sekula itzuliko eztala.

Ikusten dedanez, zuretzako, neretzako bezela, poesia ezta denbora pasatzeko jostallu polit bat. Zuek, euskal poetak, erriaren akullu izan bear zerate, antziñako profetak izan ziran bezela. ala izan bait da beti erri zoriguiztoko guztietan.

Zuen zama, zuen responsabilidadea, izugarria da. eginkizuna ziñez artzen dezuten ezkero.

Zure itzuldia entzun ondoan, "Biotz begietan" eta "Harri ta Herri" idaztiak, nere liburutegian artu, ta biak batuan irakurtzen uri naiz, arratsean. ia argi urratzearte.

Au alde izugarria!

Batzuek ez omen dute ulertu nai, berrogei urte ontan, dana aldatu dala. Aldakuntz larri au eztute onartu nai. Bañan "errealitatea" gure ametsak baiño indartsuagoa da: begiz begi jartzen zaigu eta guk ez ikusi egin!

Eta nola izango zitzakean denbora berri ontan, poesia ez aldatzea? Gaurko gizonari atzoko berbakin, nola mintzatu?

Bi belaun oietan, nik enuke esango "au da onena", "ori da txarrena", baizik "au gaurkoa da", "ori atzokoa". Edo "Historia, ortik igaro zan" eta "Historia, emendik igarotzen ari da, andik igaroko bide da".

Zergatik gure jendea joku-kanpoan, offisden, beti izatea?

Au da nere pentsaera gai irri buruz. Uste dedanez zurekin bat nator, mamian beintzat. Bildurrez nago oraiu, ni ere herejetzat artuko nautela.

Agur adixkide, zorionak ta jarrai.

CARLOS SANTAMARIA

FUNCOR, S.C.I.

Benetako baserritarrak bear ditutzen MAKINAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakisuni'k onenak, amengo nekasarientxat

ADI TA ORO! EZAZU

FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

ELORRIO Vizcaya 114

FAGOR

Eraria epela dagola?

FAGOR'ek eztuko du berela

piensos Biona

BI ALDIZ ONA

BIOTER'EK babestua

Pentsugille: VELCIA, S. A.

DONOSTI'n: Apartado 155. Urrut. 26.820, 21 ta 22

TUDELA'n: Apartado 51. Urrut. 820.812 ta 820.816

NANCLARES (Araba): Carretera General Vitoria-Miranda Km. 12. - Urrut. 6